

## 21. Azpeitiko Sansilbestrie

21. Sansilbestrie lasterketa lelo eta irudi berriarekin dator aurtengoan. Urtea ondo amaitzeko zer modu hobea, herrian bertan korrika egin, lagunak familikoak txalotu, eta egun honek isladatzen duen poz eta zoriontasunarekin, datorrena hobeto hasi...

Ekintza herrikoiek, magia berezi bat dute. Elkarlanean oinarritzen dira, batzeko eta elkarrekin momentu bereziak sortzeko ahalmena dute eta Azpeitiko Sansilbestrie, ekintza herrikoietan, berezietako bat bihurtu da.

Adin eta izaera desberdineko korrikalariak batzeaz gain, inklusibitatearentzako tartea ere eskaintzen du urteko azken lasterketa herriko honetarako. TXOLARTE, MAREA URDINA eta GAUTENAKO lagunak batuko zaizkigu Sansilbestriei, ikutu bereziago bat emateko eta ohitua zaharrak berreskuratzeko.

Horren arira, aurtengo ere bi lasterketa izango ditugu.

### LASTERKETA IREKIA: 11:30

Lasterketa irekiak ez du sailkapenik izango, ez eta izen ematerik. Inklusioaren aldeko korrika saioa izango da, eta aukera bikaina iruditzen zaigu, besteak beste, haurrek beren gurasoekin parte hartzeko, korrika inoiz egin ez duen jendea une batez hartan aritzeko eta inklusioaren aldeko aldarri honetan norbere aletxoak jartzeko. 600 metroko jai bat izatea nahi dugu, denok elkarrekin korrika eginez gozatzeko Azpeitiko alde zaharreko kaleetan barrena. Lasterketa hau zabaltzen TXITA SOUND SYSTEM bizikleta joango da lasterketa irekiz eta kaleak musika doinuez animatuz.

### 21.AZPEITIKO SANSILBESTRIE: 12:00 (Ibilbide berria)

6km dituen proba izango da. Zirkuitu berria izango dugu, errepide nagusia sahiestuz eta alde zaharreko kaleak zeharkatuz. Sailkapena lehiatuko duten horietatik haratago, gure nahia da jendeak kirola eginez agurtzea urtea. Horretarako, iruditzen zaigu egin beharreko distantzia egokia dela. Lasterketa leloa jarraituz, ondo bukatzeko, helmuga gunean, Kaiku produktuak izango dira, Azpeitiko taberna desberdinetako pintxoak banatuko ditugu, zenbait edari freskagarri eta nola ez giro ona ez da faltako!

### DORTSALAK ETA TXIPA:

Txipa dortsalean izango duzue; Dorsalak lasterketa aurreko egunean eta egunean bertan banatuko dira Azpeitiko azoka plazan: abenduak 30 ostirala eta abenduak 31 larunbata. Egunean bertan goizeko 10:00etan hasiko gara eta proba hasi baino ordu erdi lehenago arte banatuko ditugu. Aurtengo 800 dortsal izango ditugu. Dagoeneko dortsalak agortuta daude.

### DUTXAK, KOMUNAK ETA KONSIGNAK:

Dutxak Izarraitz pilotalekuan izango dira, irteera gunetik 100 metrora. Arropak uzteko aukera ere bertan izango duzue. Komun publikoen erabilpena eskertuko genuke. Azoka plaza kanpoaldean dituzue enparantza nagusian eta parke estalian, Izarraitz frontoiaren kanpoaldean.

Mesedez errespetatu tabernetako komunak, bertako bezeroentzat.

### IZEN EMATEAK:

Aurtengo izen emateak web honen bidez egin ahalko dira: [www.kirolprobak.com](http://www.kirolprobak.com). Hain zuzen ere, 10€ ordainduta. Aurtengo izen emateak osatu dira. Mesedez eskertuko litzateke dortsalik gabe ez irtetea.

Haurrak 2008tik aurrera jaiotakoak badira, Lasterketa Irekian har dezakete parte; Aldiz, hortik atzerakoek gainerakoekin batera irten ahalko dute Lasterketa Herrikoian.

### SARIAK:

Aurreneko hiru gizonetako eta emakumezkoentzako sariak banatuko ditugu; Lehen hirurek, ohiko garaikurra jasotzeaz gain, Azpeitiko Santi Lazkanon edo Azkoitiko Plaza Berri Sport-ek erosteko bonoak izango dituzte sari moduan. Lehenak 165€-ko bonu saria Bigarrenak 135€ eta hirugarrenak 100€. Aurreneko Azpeitiarrentzako eta Azkoitiarrentzako ere izango dira garaikurra eta saria. Azpeitiarren kasuan, BERTAN merkataritza elkarteak emandako 100€ ko saria izango dute eta Azkoitiarren, URIA SUKALDEAK emandako beste 100€.

# 2022ko abenduak 31 21. edizioa

# AZPEITIKO SANSILBESTRIE

## Ondo bukau, hobeto hasi!

**11:30 LASTERKETA IREKIA** (600 metroko inklusibitatearen aldeko jaiak).

Ez dago izena eman beharrik. Ez da sailkapenik egongo. Azpeitiko plazatik atera eta inguruko kaleetan barrena.

**12:00 21. AZPEITIKO SAN SILBESTRIE**

**IZEN EMATEAK** (Gehenez 800 parte hartzaile)

[www.kirolprobak.com](http://www.kirolprobak.com) webgunean **10€**. Egunean **15€**

### LAGUNTZAILEAK:



### ANTOLATZAILEA:

